



Arartekoren ebazpena, 2009ko urtarrilaren 13koa, Lemoizko Udalaren igeltsero baten aldi baterako kontratazioaren inguruko kexa baten ziozko esku-hartzeari amaiera ematen diona.

Gertakariak

1. 2008ko urtarrilean, Lemoizko biztanle batek erakunde honetara jo zuen lagun hori bizi deneko udalerrriak igeltsero bat kontratatzeko prozedurari publikitatea eman ez ziola salatzeko. Lemoizko biztanle horren arabera, prozedura horretan txandako lan kontratua sinatu zen 2007ko uztailan.

Kexa egileak jakinarazi digu lanpostu horri heltzeko asmoa eduki duela, baina ezinezkoa gertatu zaiola kontratazioaren prozedurari buruzko informaziorik jaso ez duelako.

Arrazoi horregatik, biztanleak udalera jo zuen 2007ko irailean, idazki baten bidez, eta bertan eskatu zuen prozedurari buruzko argibideak emateko.

Interesdunaren arabera, Lemoizko alkateak ahoz erantzun zion, eta adierazi zion INEMeko enplegu bulegoan izena emandakoen artean, antzintasun handieneko pertsona kontratatu zela.

Interesdunak zalantzan jarri zuen alkatearen erantzuna, ezen, bere esanetan, Mungiako Enplegu Bulegoko zuzendari andreak uztailaren 25ean egindako ziurtagiria baitauka, non honako hau jasota dagoen: *"Que consultado el sistema informático, no se ha encontrado referencia a registro alguno de oferta de empleo presentado por el Ayuntamiento de Lemoiz durante el presente año"*.

Beraz, jasotako erantzunarekin ados geratu ez dela, Lemoizko biztanleak udalak bideratutako prozedurari buruzko informazioa eskatu zuen berriro.

Interesdunak esku hartzeko eskatu zigunean, 2008ko urtarrilaren erdialdean, Lemoizko Udalak artean ez zion haren eskaerari erantzun. Bestalde, biztanlearen eskaera toki erakundearen erregistratu zen 2007ko abenduaren 3an.





Udalean aurkeztutako bi eskabideen kopia helarazi zizkigun interesdunak, bai eta Mungiaiko enplegu bulegoko zuzendari andreak egindako ziurtagiriaren kopia ere.

2. Kexa idazkia aztertu ondoren, gure aburuz, interesdunak agertutako arrazoiek eskubidea ematen diote udal administrazioak izenpetutako kontratuaren prozedurari buruzko argibideak eskuratzeko. Bestetik, toki administrazioaren erantzun ezak sorrarazi zuen gure esku-hartzea.

Horiek horrela, Lemoizko Udalari laguntza emateko eskatu genion eta kexa balioztatzeko froga nahikoak eman ziezazkigula eskatu, kontratazioaren prozeduran jazotako inguruabar eta arrazoibideak aintzat hartuta.

Auzi honen gaineko jakintza kexan agertutako gertaeretan eta horri erantsi zaizkion agirietan oinarritzen denez gero, batik bat, gertatutakoaren berri emateko eskatu genion alkateari, interesdunaren eskabideari berariaz erantzun ziezaiola eta, gure balioztapenari dagokionez, hautaketa izapidetzeko kudeaketen berri eman ziezagun. Amaitzeko, auzi honen gaineko iritzia emateko eskatu genion, betiere arrazoituta.

Aipatutako eginbideak nahikoak izango zirelako uste osoa izan genuen, alde batetik, benetan gertatutakoak argitzeko eta, bestetik, kexaren iturria zen auziari zuzenbidezko irtenbidea emateko.

3. Artean toki administrazioaren erantzunik jaso ez genuela, interesdunak beste idazki bat helarazi zigun, alkateak sinatutakoa. Idazki hori 2008ko urtarrilaren 16koa zen eta bertan ondokoa esaten zen:

“En contestación a su escrito, por medio de la presente le informo que los criterios que en todo momento han presidido la contratación para el puesto de albañil del Ayuntamiento de Lemoiz, han sido criterios única y exclusivamente objetivos, quedando al margen la más mínima sospecha de arbitrariedad, siendo estos criterios el de mayor antigüedad en el paro, tener una preparación profesional acorde con el puesto a cubrir, ser oriundo del municipio de Lemoiz valorando, a mayor abundamiento y de manera accesoria haber trabajado en el Ayuntamiento.”





En ningún momento, tal y como se ha recogido anteriormente, se han tenido en cuenta criterios de arbitrariedad o subjetivos que pudiesen equiparar la presente contratación con la libre designación a dedo por motivos ajenos al interés público, fin éste que ha de regir toda actuación municipal.”

4. Aurretiaz eskatutako informazioa berriro ere galdatuta, Lemoizko Alkatezako ofizio bat bidali zigun eta bertako testuak bazekartzan interesdunak udaletxean aurkeztutako idazkiak eta udalaren erantzuna, hots, hirugarren gertakarian aipatutakoak.
5. Ordura arte, administrazioak beteta zuen interesdunaren eskabideari erantzuteko beharra. Beste kontu bat da erantzunaren edukia nahikoa ote den bidezko interesa argudiatu duen herritar baten informazio beharrari erantzuteko. Nolanahi ere, azken alderdi hori behar bezala aztertuko dugu gerora, ebazpen honen gogoeten atalean.

Alabaina, erantzun gabe zegoen erakunde honek udalari egindako eskaera. Izan ere, udaletik jasotako agiriak gure esku zeuden, aurreko ataletan azaldu dugun moduan. Behar-beharrezkoa zen txosten bat eskuratzea non toki erakundeak gertatutakoak azaldu eta, bere iritziz, egindako jardueren legezkotasuna arrazoitzen zuen.

Hori dela eta, berriro ere jo genuen administrazioa alderdi hori argitzeko. Hala, administrazioaren egitekoak bideratzeko, halaberrez aztertu beharreko gai batzuk zehaztu genituen.

Horiek horrela, txostenean agertu beharreko datuak adierazi genituen gure idazkian: deialdiaren oinarriak –edo oinarriak ezean, kontratazioaren iragarpenaren berri emateko dokumentuak–, lanpostua betetzeko eskakizunak (lanpostuaren ezaugarriak, eginkizunak, iraupena...), hautatutako pertsona eskuratuko lukeen lan lotura (lan legepekoa, funtzionarioa, kontratu mota edo izendapena...) kontratazio prozeduran onartzeko eskakizunak, kontratazioa garatzeko urratsak, hautabidea (oposizioa, lehiaketa, oposizio lehiaketa) kontuak hartzeko merezimenduak, eta lanpostuak betetzeko prozedura ohikoetan udalak darabiltzan beste edozein izapide, udalak egoki joz gero.





Gure eskakizunaren helburu nagusia zen erantzunak argiro azaltzea deialdiaren publizitatea nola egin zen eta kontratazioaren urratsak nola garatu ziren, publizitatea zein bitartekoz gauzatu zen aipatuta.

6. Lemoizko alkateak beste idazki bat bidali zion erakunde honi. Idazkiaren edukia, hitzez hitz, ondokoa zen:

“En relación con el expediente de referencia, se pone de manifiesto que, tal como se indicó en el oficio de fecha 4 de marzo de 2008, por esta Administración se ha remitido toda la documentación que obra en el archivo municipal, no constando ninguna otra documentación adicional a la ya entregada.”

7. Hortaz, agerikoa zen Lemoizko Udalak ez zuela txosten bat egin nahi erakunde honek mahairatutako gaiak azaltzeko.

Lehen eskabidea egin zenetik igarotako denbora kontuan hartuta, udalaren laguntza eskuratzeko bidea agortutzat jo baino lehen, beste eskabide bat egin zen. Azken eskabideak erantzunik izan ez zuenez gero, beste eskabide helarazi genuen Lemoizko Udalera.

Alkatetzatik jasotako azken idazkia ere ofizioa da eta bertan Arartekoren bulegora bidalitako aurreko bi ofizioak aipatzen dira.

Laburbilduz, honako espediente hau izapidetzeko, Lemoizko Udalak eskaini digun laguntza guztia hiru ofizio igortzea izan da.

Gogoetak

1. Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, Ararteko erakundea sortu eta arautzekoa denak, hainbat eginkizun ezartzen dizkio eta, horiek betetzeko, ikertzeko ahalmena esleitzen dio euskal herri administrazioen esparru osoan. Toki administrazioa ere esparru horren barruan dago.

Jarduera esparru horren barruko erakundeotako atal guztiek laguntza emateko betebeharra daukate. Legeari jarraiki, laguntzeko betebeharrari eusteko, eskatutako datu, agiri, txosten edo argipen oro eman behar dituzte herri administrazioek.





Hizpide darabilgun espedientearen izapidetzean, ebazpen honen aurrekariak agerian uzten dute kexa iturri den administrazioak ez diela behar bezala erantzun gure informazio eskabideei. Aipatutako administrazioak eman digun laguntza administrazio prozeduraz kexa den pertsonaren kariaz sortutako agirien kopia bidaltzea izan da, ez besterik, baina erakunde honek bazeuzkan agiriok eskura. Eta agiriak ez bidaltzeaz gain, ez digu inolako argibiderik eman kexa egileak parte hartu ezin zueneko kontratazioaren deialdi eta prozeduraren garapenari buruz.

Azken gertaera erabakigarria izan da kexaren azterketan, jarduera horretan oinarrizko datuak ukatu baitzaizkio erakunde honi, udal langile bat kontratatzeke egitateak eta baldintzak ezagutu ezean, ezin baitu arrazoitutako irizpenik eman.

Izan ere, ebazpen hau funtsatzeko oinarri bakarrak ditugu, interesdunak emandakoez gain, alkatearen 2008ko urtarrilaren 16ko erantzun idazkian aipatzen direnak.

2. Interesdunari bidalitako idazkian, Lemoizko alkateak dio udalaren igeltsero lanpostua kontratatzeke irizpideak ondokoak izan zirela: antzintasun handiena edukitzea enplegu bulegoan, bete beharreko lanpostuaren araberako gaikuntza izatea, lemoiztarra izatea, eta modu osagarrian, Lemoizko Udalarentzat lanean ibili izana.

Kontratazio berba erabili denez eta langabezian emandako denbora kontuan hartu denez, ulertzekoa da kontratazio prozedurari doakion lan harremana kontratupekoa dela eta, beraz, baztertu behar da udalarekiko funtzionario harremana.

Horrela, aipatu behar dugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL, hemendik aurrera) 85. artikulua ezarritakoari jarraiki, lan zuzenbidezko erregimenean kontratatutako pertsonak ere toki administrazioen zerbitzuko langileria osatzen dute, karrerako funtzionarioekin eta konfiantzako lanpostuetan nahiz aholkularitza bereziko lanpostuetan dabilzan aldi baterako langileekin batera.

Herri administrazioetako Langileen Oinarrizko Estatutuak (HALOE, hemendik aurrera), apirilaren 12ko 7/2007 Legeak onetsi zuenak, herri langilearen izaera aitortzen die lan legepeko beharginei (8. artikulua). Harreman hori lan arloko





legeriak, indarrean diren hitzarmenezko arauak eta estatutu horretako manuek araztuko dute (7. artikulua).

HALOEK honela definitzen du lan legepeko langileria: *“el que en virtud de contrato de trabajo formalizado por escrito, en cualquiera de las modalidades de contratación de personal previstas en la legislación laboral, presta servicios retribuidos por las Administraciones Públicas. En función de la duración del contrato éste podrá ser fijo, por tiempo indefinido o temporal”.*

Aurreko atalean esandakoagatik, langile publikoak diren aldetik –administrazioarekiko lan harremana zeinahi dela ere–, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren abiaburuek zuzendu behar dute langile horien hautapena.

Aipatu estatutuaren 5. artikulua lehen atalak argi eta garbi agertzen du lehen esandakoa: *“Todos los ciudadanos tienen derecho al acceso al empleo público de acuerdo con los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad, y de acuerdo con lo previsto en el presente Estatuto y en el resto del ordenamiento jurídico”.*

TAOLen 91.2 artikulua ere abiaburu horiek beroriek jasotzen ditu, toki administrazioetako langileak hautatzeko prozeduraz diharduenean, langileak funtzionarioak nahiz lan legepekoak izanik ere.

Hala berean, 55. artikulua bigarren atalak beste abiaburu batzuk gaineratzen dizkio konstituzio mailako oinarriari. Bigarren atal horretakoak ere jarraitu beharrekoak dira langile publikoak hautatzeko prozeduran:

- a) deialdien eta oinarrien publizitatea,
- b) gardentasuna,
- c) hautatze mahaiko kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna,
- d) hautatze mahaiko kideen mendekotasunik eza eta gaitasun teknikoa,
- e) Hautatze proben edukiaren eta lanpostuan gauzatu beharreko eginkizunen arteko egokitasuna,
- f) bizkortasuna hautatze probak ebazteko, objektibotasunari kalterik egin gabe.

Abiaburu horiek guztiek eskakizun batzuk badakartzate, baina aztertzen ari den auzi honetan, erakunde honek ezin izan du egiaztatu abiaburuon betekizuna,





batik bat, deialdiaren eta lanpostua lortzeko oinarrien publizitateari dagokionez. Publizitate horren faltaren zioz, interesdunak ezin izan du hautaketan parte hartu eta, horren eraginez, kexa adierazteko idazkia bidali digu.

3. Beste alde batetik, ez dugu egiazko informaziorik jaso lanpostua betetzeko edo langile baten beharrianari erantzuteko kontratu motari eta haren iraupenari buruz –kexa-idazkiak txandako lan kontratua aipatzen du.

Jakin dakigu karrerako funtzionarioak nahiz lan legepeko langile finkoak hautatzeko prozedurek bat etorri behar dutela ordenamendu juridikoak ezarritako moduren batekin: oposizioa, oposizio lehiaketa edo lehiaketa. Aldi baterako langileak kontratatzerakoan, herri administrazioek aukeran dute lehen aipatutako moduren bat, baina beste prozedura batzuk ere erabil ditzakete, hala nola, gaur egun askotan baliatzen den lan poltsaren prozedura.

Administrazioak aukeratzen duen modua zeinahi dela, aipatutako abiaburuek arteztu behar dute kontratazioaren prozedura eta aldi baterako kontratua nahiz kontratu finkoa eskuratzeko lehian dabilzan izangaiek bete beharreko betekizunak berdinak izan behar dira.

EA Eren eremuari gagozkiola, uztailearen 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, funtzionarioen (karrerakoen nahiz behin-behinekoen) eta lan legepeko langileen (finkoen nahiz aldi baterakoen) eskakizun erkideak ezartzen ditu. Hala, alde batetik, 25.1 artikulua ondokoa dio: *“Euskal Herri-Administrazioek ageriko deialdiz eta norahirentzako norgehiagoka, lehiaketa edo norgehiagoka-lehiaketa bidez aukeratuko dute euren langilegoa, funtzionarioa zein lan-itunpekoa izan, horietan, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-irizpideak bermatuko direla”*. Beste alde batetik, 33.1 artikulua, behin-behineko funtzionarioen hautaketaz diharduela, ondokoa dio: *“araz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-irizpideak kontutan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzeko saiatuz”*. Gainera, artikulua honako hau ere jasotzen du: *“Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langilegoak titularizoiari buruzko eskakizun nagusiak eta aldikotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egitekorako eskatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte”*.

Deialdi batek jaso beharreko betekizunei dagokienez, HALOE onesten duen legearen 56. artikulua jasotzen ditu enplegu publiko bati heldu nahi dion pertsona orok bete beharreko eskakizun orokor guztiak.





Honaino iritsita, bidezkoena litzateke deialdiaren oinarriek ezarritako araubidea legeak galdatzen dituen eskakizunekin bat ote datorren aztertzea. Udal administrazioaren laguntzarik ezaren ondorioz, erakunde honek ezin izan du prozedura aztertu; ildo horretan, ezin esan genezake prozedurak deialdia eduki eduki duela, oinarriak bertan jasota, ezta, behinik behin, lanpostuari heltzeko baldintzak zehaztu direnik ere.

Horiek horrela, interesdunari helarazi zaion idatzian jasota datuen datu urrietatik ondoriozta daiteke udalak hautagaia aukeratzeko kontuan hartu dituen irizpideak –hautatze prozedurari artez doakion xedapen batean jaso ez badira ere– honako hauek izan direla: antzinasuna langabezia egoeran, eskaintzen den lanpostuaren araberrako gaitasuna eta hautagaia udalerrian jaiotakoa izatea. Idazkian jasotakoaz den bezainbatean, udalean bertan aurretiaz izandako lan eskarmentua, betekizuna baino, badirudi merezimendua dela.

Erakunde honek jakin zuenean langabezia egoeran emandako denbora irizpide garrantzitsua zela, aintzat hartu genuen beharbada kontratazioa INEM erakundearen eta toki administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmenak jasotako arauen arabera eta horien itzalpean egin zela, ekonomia edo gizarte egoera babesgabean dauden pertsonak laneratzeko helburuz.

Illo horretan, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ere hainbat ekimen jasotzen ditu; bada, 33. artikulua bigarren paragrafoak honako hau dio: *“Gizartetik baztertutako jendea birgizarteratzea sustatu ahal izateko, Euskal Administrazio Publikoek bere aldi bateko lanbide-egitarauak jarri, edo herri nahiz norbanako-alorreko beste erakundeekin ituneak egin ahal izando dituzte”*.

Lankidetzaren programa horiek bideratzekotan, badakigu halabeharrez izena emanda egon behar dela enpleguaren zerbitzu publikoan kontratuaren hartzailea izan ahal izateko.

Nolanahi ere den, administrazioak zenbait aukera izan ditu langabezia egoeran egoteko eskakizuna, eta hala badagokio, antzinasun jakina eduki behar izateko baldintza bidezkoetako. Alabaina, ez digu inolako arrazoiren berririk eman eta, hortaz, erakunde honek zalantza egiten du eskakizun horren legezotasunaren gainean.





4. Administrazioak adierazitakoaren arabera, erakunde honek egindako azterketan argiro azaltzen den beste betekizun bat dugu Lemoizko biztanlea izatea –*ser oriundo*, udalak egindako idazkian esaten denez– kontratuari heltzeko.

Enplegu publikoa lortzeko helburuz, zeinahi prozeduratan onartzeko betekizun orokorreari dagokionez, HALOEren 56. artikulua jasotzen dituen betekizun guztien artean –3. gertakarian aipatu dugu honako xedapen hau–, lehenengoa Espainiako naziotasuna izatea da, hurrengo artikulua azaltzen dituen baldintzen kalterik gabe. Hurrengo artikulua, bada, Europako Batasuneko estatu kideetako herritarrentzako eskakizunak ezartzen ditu herri administrazioetako kontratazioetan parte hartzeko, baita Europako erkidegoz kanpoko atzerriarrentzako eskakizunak ere (hala ere, azkenek lan harremana besterik ezin dute izan).

Hizpide dabilgun auziari dagokionez, legeak eskakizun horren gainean xedatzen duen aukera zabalari lotu beharrez, tokiko administrazioak zeharo mugatu du prozeduran parte har zezaketen lagunen esparrua, izangai guztiek Udalerrian jaiotakoak izan behar baitzuten.

Aurrekoa dela eta, administrazioak ordenamendu juridikoa urratu du, legeriak xedatutako betekizun orokorrak tasatuak baitira, eta beraz, deialdiaren oinarriek ezin dute beste betekizun osagarriak jaso, ezta legeriak xedatutako kopurua handitu.

Bete beharreko lanpostu edo eginkizunetan interesa daukaten pertsonen herritarrak izan, udalerrian bizi izan edo, areago, kontratazioa bideratzen duen administrazioaren lurraldearen barruan jaiotakoak izateko eskatzea kotak edo mugapen nabariak ezartzea da, inolako oinarri objektibo eta arrazoirik gabe, baldintzapen hori hautagaien merezimenduz eta gaitasunaz erabat bestelakoa baita.

Arestian azaldutakoagatik, betekizun mugatzaile horrek garbiki urratzen du legearen aurreko berdintasun eskubidea, eta 14. EB artikulua ezarritako jaiotzaren ziozko bereizkeriak galarazteko agindua hausten du bete-betean. Horren harian, funtzio publiko eta kargu publikoei heltzeko eremuari dagokionez, 23.2 artikulua xedatzen du aukera berdintasunean parte hartzeko eskubidea.





Auzitegi Gorenak auzotasun eta egoitzari buruzko eskakizunen deuseztasuna ebatzi du 1988ko urtarrilaren 25eko, apirilaren 6ko eta uztailaren 8ko; 1990eko otsailaren 28ko eta 1993ko uztailaren 4ko epaiak sorrarazi dituzten errekurtsioetan.

5. Kexa-idazkia behar bezala aztertzeke eginbideetan, udal administrazioaren informazio gabeziak lanpostua betetzeko prozeduran aintzat hartzen den lan eskarmentuaren balioespena ere ukitzen du. Horregatik, horrenbestetan aipatu dugun idazkian alkateak hitzez hitz esandakoak kontuan hartuko ditugu: *“a mayor abundamiento y de manera accesoria haber trabajado en el ayuntamiento”*.

Horren ildoan, HALOEren 61.3 artikulua honako hau dio: *“Los procesos selectivos que incluyan, además de las preceptivas pruebas de capacidad, la valoración de méritos de los aspirantes sólo podrán otorgar a dicha valoración una puntuación proporcionada que no determinará, en ningún caso, por sí misma el resultado del proceso selectivo”*.

Ez dakigu lan eskarmentuaren merezimendua nola balioetsi den Lemoizko Udalaren hautaketan. Gure iritziz, baina, balioespen horren nondik norakoak jakitea ezinbestekoa da neurrizkotasunaren gaineko informazioa jasotzeko.

Dena dela, aipatzekoa da merezimendu gisa bakarrik balioesten direla kontratazioa bideratzen duen administrazioan bertan emandako zerbitzuak. Murrizketa hori ezin onartuzkoa da prozedura irekiaren ezaugarrietan, prozedurak berak bermatzen baititu lan publikoa beteko duten pertsonen hautaketak bereizgarri izan behar dituen lehia askez eta aukera berdintasuna.

Lan eskarmentua merezimendu gisa balioestea guztiz bidezkoa da eta bat dator legearen aurreko berdintasun aukerarekin. Gainera, garrantzi handiko alderdia suerta daiteke zerbitzuak emateko eragingarritasunari begira. Hala eta guztiz ere, merezimendu gisa balioetsi behar delako, eta izangai bati abantaila eskaintzen diolako balio erantsi horren ekarpena egin ezin denaren aldean, ez litzateke zilegi izango bete nahi den lanpostuaren antzeko eginkizunetan emandako aldia ez balioestea edo gutxiago balioztatzea, halako eran non gehiago balioesten den toki administrazioan bertan hartutako eskarmentua beste administrazio batzuetan hartutakoa baino edo, aztertzen ari garen auzian gertatzen den bezala, deialdia argitaratu duen udalean hartutako eskarmentua besterik ez balioestea.





Konstituzio Auzitegiaren doktrinak hala diosku. Adibide bat ematearren, azter dezagun 281/1993 Epaia, irailaren 27koa. Goi auzitegiak 2736/1990 babes errekurtsioan (RTC\1993\281) eman zuen aipatu epaiaren ebazpena. Errekurtsio hartan aztertutako gertaeren zioa bazen Leganesko Udalak egindako lan publikoaren deialdi bat. Deialdi horren bitartez, hainbat administrari lanpostu bete nahi ziren, lan legepeko harremanaz, baina merezimenduen baremazioak berdintasun abiaburua urratzen zuen, hainbat arrazoirengatik, batik bat, udal jakin batean hartutako lan eskarmentua balioesteagatik, deialdiaren egile zen udalean hartutako lan eskarmentua balioesteagatik, hain zuzen ere, eta ez beste toki administrazio edo herri erakundeetan hartutakoa.

Epai horren bigarren oinarri juridikoaren hitzez hitzeko aipamena ekarri dugu txosten honetara:

“La experiencia es, desde luego, un mérito, y conferir relevancia a su disfrute no sólo no es contrario a la igualdad, sino que, en tanto que cualidad susceptible de justificar una diferencia de trato, se coherente perfectamente con el art. 14 de la Constitución y es condición de obligada relevancia en atención a criterios tales como los de eficacia en la prestación de servicios por parte de la Administración Pública. Con todo, contraría abiertamente al principio constitucional de igualdad el que en un concurso de méritos que, como el de autos, se articula alrededor de la experiencia adquirida en diversos puestos administrativos, se prime desafortunadamente y de manera desproporcionada -y con la consecuencia de hacerlo determinante del resultado último del concurso- la experiencia representada por el desempeño de una determinada categoría (la de los puestos convocados) en un determinado Ayuntamiento (el convocante).

(...)

Y una diferencia no justificada es, precisamente, la contenida en el baremo ahora enjuiciado, toda vez que diferenciar a los concursantes en función del Ayuntamiento en el que han adquirido determinada experiencia y no a partir de la experiencia misma, con independencia de la Corporación en la que se hubiera adquirido, no es criterio razonable, compatible con el principio constitucional de igualdad.”





Lemoizko Udalak igeltsero baten kontratazioan erabili duen prozedura aztertzeko datuei dagokienez, alkatezaren 2008ko urtarrilaren 16ko idazkian ageri den moduan, erakunde honek hainbat irregulartasun antzeman ditu eta horien gaineko irizpena ematen du, ondoan agertzen diren ondorioen bidez.

Ondorioak

- 1.a Kexa sorrarazi duen zioa prozeduraren publizitate gabezia izan da; akats horren eraginez, interesdunak ezin izan du kontratazioan parte hartu.

Legeak ezarritakoari jarraiki, herritar guztiek eskubidea dute lan publikoan jarduteko, funtzionario gisa nahiz lan legepeko behargin gisa, administrazioarekiko lan harremanaren iraupena edozein dela, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren abiaburu konstituzionaletan oinarritutako prozedura baten bitartez.

Administrazioaren isiltasuna dela eta, pentsatu behar dugu ez dela behar bezala jagon publizitatearen abiaburua.

- 2.a Prozedura deitzen duen administrazioaren udalerrikoa izatea ez da eskakizun objektibo eta arrazoizkoa, izangaien merezimenduez eta gaitasunaz kanpoko gertaera delako. Horren ondorioz, deialdiak konstituzioko berdintasun abiaburua urratzen du.
- 3.a Hautaketetan hainbat merezimendu balioetsi ahal dira, betiere merezimenduen bidez lor daitezkeen puntuak egokiak eta neurrizkoak badira, eta prozeduraren emaitza bera erabakitzen ez badute.

Lan eskarmentua kontuan hartu beharreko merezimendua da eta horren balioespena bat dator legearen aurreko berdintasun abiaburuarekin. Hala eta guztiz ere, abiaburu horri men egiteak badakar, hain zuzen ere, deialdia egiten duen administrazioan egindako zerbitzuei beste herri erakunde batzuetan emandakoei baino balio handiagoa ematea berariaz galaraztea, edota prozedura bideratzen duen administrazioan bertan hartutako lan eskarmentuagatik bakarrik puntuak lortzeko modua alboratzea.



